

Irizarren hiru autobus % 100 elektriko Donostian

Ormaiztegi, 2016eko uztailaren 5a

Gaurtik aurrera Donostiak Irizarren bi autobus % 100 elektriko gehiago izango ditu, 2014ko uztailetik martxan dabilenari gehituko zaizkionak.

Autobus horiek Dbus konpainiakoak izango dira eta 26 linean ibiliko dira, Amara eta Martutene lotuz Urumeako erriberan barrena (Erriberak, Loiola, Txomin eta Martutene)

Autobus berriak bi Irizar i2e dira, %100 elektrikoak, zero igorpenekoak eta 12 metro luze, eta energia kontsumoa optimizatzeko diseinatu dira. Dbusen hiriko autobusen prestazioak hobetuko dira autobus horiekin.

Ibilgailuak erabat isilak dira eta ez dute kutsadurarik igortzen. 200 kilometro baino gehiagoko autonomia dute eta Sodio-Nikelezko bateriak dituzte, motor elektrikoari energia emateko. 1500 Nm-ko trakzio pare nominala lortzen dute, 180 kW-ko potentzia. Ibilgailuak balaztatzearen energia leheneratzen du energia elektriko bihurtuta eta horrek baterien autonomia handitzen du.

Dbusek eskatutako **erosotasun, irisgarritasun eta segurtasun** baldintza guztiak betetzeaz gain, **berritasun gisa USB sarbideak** dituzte bidaian zehar gailu elektronikoak doan bete ahal izateko.

Kanpoko eta barneko diseinua ere landu da. Helburua izan da ingurumenarekin arduratsua den garraio publiko batekin iraunkortasunaren aldeko apustua eta konpromisoa helaraztea. Ibilgailuaren barnealdeak hainbat elementu ditu bidaiariak onurak sentitu eta gozatzeko.

Irizarrek balio erantsia ematen die operadoreei eta herritarrei, hiriko elektromugikortasun proiektuaren partaide egiten baititu eta mugikortasun iraunkor, eraginkor eta kalitatezkoaren eskaintza sustatzen du. Azken helburua herritarren gogobetetzea da.

Era berean, Irizarrek autobusak modu inteligentean kargatzeko zentral bat instalatu du, JEMAK (Irizar Taldeko enpresa) garatutakoa. Gaueko karga prozesua kudeatzen du automatikoki modu onenean egin dadin.